

KALLE 12ren maketa kalean

Dagoeneko kalean dago Kalle 12 ermua-
rren estraineko lana, udaberrian Barakaldo-
ko Belan estudioetan grabaturiko zortzi
abestiz osaturiko maketa, 500 pelatan salgai
ohizko tabernetan. Produkzioa taldearen
kontu joan da, autoprodukzioa beraz, eta ba-
naketa lanaz DDT talde alternatiboa ardura-
tzen da. Horrek zera esan nahi du, Kalle
12koak gogoz datozela, edozertarako prest,
euren lehen maketaren 500 kopia Ermuan ez
ezik Euskal Herri osoan ere banaturik.

Santixauetako kontzertuan ikusi ahal
izan genuenez, taldeak hainbat aldaketa ja-
san du, horrela Oskarren ordeiz Ibanek hart-
zen du kitarra eta Bani gehitzen zaie bere ar-
monikarekin.

Erritmo aldaketa ugari erabiltzen dute
abestietan, orokorrean bizkorragoak eta lan-
duagoak izanik, baina funtsean aldaketa gut-
xi, Kalle 12k ildo beretik jarraitzen baitu, ro-
kanrolari eutsiz. Gaur egungo hainbat rock
talderen influentzia dexente nabaritzen da
ermuar hauen abestietan, eta horrela Celtas
Cortos, Kalean, Su Ta Gar eta Platero y Tu
bezalako izenak datozkigu burura kaxeta
entzuterakoan.



Maketaren azala

"No intentes comprarme" arrazakeriaren
aurkako abestiarekin zabaltzen dute lehe-
nengo aldea, kañeroa guztiz. "Es el final"
nahikoa tristea da, hasieran lasai, gero erri-
mo bizian. "Sangre en el ruedo" zezenketen
aurkako kantuz jarraitzen dute eta lehenen-
go alde hau bukatzeko "¡Despierta ya!" ma-
ketako kantarik heavyena, sistema honen
faltsukeria eta engainua salatuz.

"¡Ya esta bien!" martxa bikainaz sartzen
da bigarren aldean, El Salvador eta Palestina
herriak gogoratuz, zapaltzaileen kontra. "No
supe decir no" drogarekiko menpekotasuna
du gai, lasaiagoa. Rockaren maitale izanik,
ezin falta berorri eskainitako kanta, zehazki
beti lagun duten kitarrari eskainitakoa,
"Compañera". Eta azkenik baladatxoa,
amaiera ezinhobea, "La historia... se repite",
eraso sexista gehiagorik izan ez dadin esiji-
tuz.

Hitz gutxitan, erritmo lasaiak, erritmo
sutsuak, melodiaz betetako lelo bikainak, ki-
tarrak oso landuak, soinu paregabea eta asmo
onak. Rock and Roll hutsa.

Markos Gimeno

MUGA **KIKOLAK**

SEXTO CENTENARIO, 7
Teléfono 17 64 77
ERMUA

UGARO

AHOLKULARITZA FISKAL ETA JURIDIKOA

Zubiaurre, 27. 177 Apdoa.
ERMUA

Mutua General de Seguros

Seguru eta Reaseguruen Elkarte Mutua
1907 urtean sortua

Tfnoa: (943) 17 43 44
Faxa: (943) 17 54 58

DIETETIKA ZENTROA

HERBODIETETIKA
SENDABELARRAK

KOSMETIKA NATURALA
ERREGIMENEO ELIKAGAIK

Izelaia, 10 eta
Merkatu Plazan
Tfnoak: 17 02 13
(Etxekoa) 17 01 52

TXALAPARTA
TABERNA

Ezagutzen gaituzu
Badakizu non gaituzun

TXUTXERIAS

Zubiaurre, 12
Tfnoa. 17 01 59